BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

# Bizkaiko Batzar Nagusiak eratzeko Osoko Batzarra ekainaren hamaseian izango da Gernikan

Bilbon, 2015eko ekainaren 10an

Maiatzaren 24ko hauteskundeetan hautatutako ahaldun edo batzarkideen hirurenak ahaldun egiaztagutunak aurkezturik dituenez (astelehenean heldu zan kopuru horretara), 2015-2019 agintaldi barriko Bizkaiko Batzar Nagusiak eratzeko Osoko Batzarra ekainaren hamaseian izango da.

Maiatzaren 24ko hauteskundeetatik urten dauen legebatzarrak paretsu daukaz gizonezkoak eta emakumezkoak. Beste alderdi bat gehitu jake EAJ/PNV, EH Bildu, PSE-EE eta PP alderdiei, Podemos hain zuzen. Aldaketarik ez badago, datorren astean eratuko diran Batzar Nagusietan 25 gizonezko eta 26 emakumezko izango dira. 31 batzarkide barri egongo dira.

ERAKETA BATZARREAN EZ DAGO BARRITASUNIK

Eraketa batzarrerako prozedurea ez da aldatu Araudi barrian: Batzar Iraunkorreko idazkarietako batek deia egingo deutse batzarkidetasunaren egiaztagutuna aurkeztu daben batzarkideei, hain zuzen be egiaztagutunok aurkeztu diran hurrenkera berean; Aitatutako "deia" egin dakienean, batzarkideak Mahaira hurreratuko dira, nor diran adierazo eta, Lehendakariaren eskariz, jagoken lekuan jesarriko dira, karguaren eginbeharrak onartzen dituela adierazoteko.

Jarraian, batzarkiderik zaharrenak Adineko Mahaiaren mahaiburutza hartu eta adinez bere ondorengoak diran biei dei egingo deutse Adineko Mahaiaren lehendakariorde izan daitezan; eta bi gazteenei, idazkari izan daitezan, harik eta behin-betiko Mahaia izendatu arte.

Adineko Mahaia eratu ondoren, Batzar Nagusietako Mahaia hautatuko da isilpeko bozketaz. Lehendakariak, lehendakariorde bik eta idazkari bik osatuko dabe Mahaia.

Lehendakaria hautatzeko, batzarkide bakotxak izen bakar bat idatziko dau txartelean. Batzar Nagusietako batzarkideen botoen gehiengo osoa jasoten dauena izango da Lehendakari. Hautagaietariko batek be ez badau gehiengo osorik lortzen, botorik gehien atara daben bien arteko bozketea egin eta botorik gehien ataraten dauena izango da Lehendakari.

Bardinketarik izan ezkero, bozketea barriro egingo da, baina beste behin baino ez; horretan be bardinduta egon ezkero, Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusietarako hauteskundeetan botorik gehien ataratako alderdi politikoaren hautagaia izango da Lehendakari.

Lehendakariorde biak batera hautatuko dira. Batzarkide bakotxak izen bakar bat idatziko dau txartelean eta botorik gehien ataraten daben biak hurrenez hurren izango dira hautatuak. Idazkariak hautatzeko, lehendakariordeen kasuan erabilitako bide berbera erabiliko da.

Aitatutako bozketak amaitu ostean, Batzar Nagusiak behin betikotasunez eratuta dagozala aldarrikatuko dau hautaturiko Lehendakariak, jardunean dagoan Ahaldun Nagusiari

ofizialtasunez jakinarazoko deutso eta, ordubetegarrenean egin beharreko hurrengo batzarrerako deia egingo dau. Batzar hori Bateraezintasunen Behin Behineko Batzordeko batzordekideak izendatzeko egingo da. Era berean, hurrengo Osoko Batzarrerako deia —Bateraezintasunei buruzkoa— zehaztuko dau; batzar hori 20 eguneko epe barruan egin beharko da. Horren ostean, eta epe zehatz barik, Ahaldun Nagusia izendatzeko Osoko Batzarrerako iragarpena egingo da.

NOTA DE PRENSA

# El pleno de constitución de las Juntas Generales de Bizkaia se celebrará el próximo martes, 16 de junio

Bilbao, a 10 de junio de 2015.

Las Juntas Generales de Bizkaia celebrarán el próximo martes, 16 de junio, en la Casa de Juntas de Gernika, su sesión constitutiva de la nueva legislatura 2015-2019, una vez que un tercio de los junteros o apoderados elegidos en las elecciones del 24 de mayo, acreditaron su condición el lunes. La sesión será presidida inicialmente por la Presidenta de la Junta Permanente, Ana Madariaga, y comenzará a las 10 horas.

Las pasadas elecciones municipales y forales han dejado para los próximos cuatro años una cámara prácticamente paritaria en la que destaca la irrupción de Podemos, que se une así a EAJ/PNV, EH Bildu, PSE-EE y PP. Si no hay cambios, las Juntas Generales estarán configuradas a partir del próximo martes por 25 mujeres y 26 hombres. Habrá 31 apoderados nuevos en el hemiciclo.

SIN NOVEDADES EN EL PLENO DE CONSTITUCIÓN

El procedimiento de la sesión constitutiva no variará con el nuevo Reglamento aprobado en el último pleno de la legislatura pasada. El próximo martes, uno de los secretarios de la Junta Permanente irá llamando a las apoderadas y los apoderados acreditados por el orden de presentación de sus respectivas credenciales. Al llamamiento, los presentes en la Casa de Juntas de Gernika exteriorizarán individualmente su presencia en el acto y, a requerimiento de la Presidencia, tomarán asiento en su respectivo escaño, en señal de asentimiento al cumplimiento de las obligaciones, así como del reconocimiento de sus derechos.

Acto seguido, ocupará la Presidencia el apoderado o apoderada de más edad de entre los presentes, que invitará a los dos miembros que le sigan en edad y a los dos más jóvenes para que, en calidad de Vicepresidentes y Secretarios, pasen a integrar la Mesa de Edad, que actuará hasta la elección de la Mesa definitiva.

Una vez constituida la Mesa de Edad, se procederá a la designación, mediante votación secreta, de la Mesa de las Juntas, que estará integrada por el o la Presidenta, dos Vicepresidentes y dos Secretarios.

Para la elección del Presidente o Presidenta , cada apoderado y apoderada escribirá un nombre en la papeleta, resultando elegido el que obtenga la mayoría absoluta de los miembros de las Juntas Generales. Si ninguno de los candidatos o candidatas obtuviera la mayoría absoluta, se repetirá la votación entre los que hayan alcanzado las dos mayores votaciones, siendo elegido la persona que tenga mayor número de votos.

En caso de producirse empate, se repetirá la votación por una sola vez, y si persistiera la igualdad, resultará elegido el candidato o candidata perteneciente al grupo político más votado en las elecciones a Juntas Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

Los dos Vicepresidentes se elegirán simultáneamente. Cada apoderado y apoderada escribirá sólo un nombre en la papeleta y resultarán elegidos, por orden correlativo, los dos que obtengan el mayor número de votos. Para la elección de los Secretarios rige la misma fórmula.

Ultimadas las anteriores votaciones, el Presidente o Presidenta electo declarará definitivamente constituidas las Juntas Generales; lo comunicará oficialmente al Diputado General en funciones y convocará un pleno, a celebrarse una hora más tarde, con el único objeto de proceder a la designación de las y los miembros de la Comisión Provisional de Incompatibilidades. Así mismo, determinará la convocatoria de la próxima sesión plenaria –Incompatibilidades-, que tendrá lugar dentro de los 20 días siguientes. Tras esta convocatoria, y ya sin plazo fijo, se anunciará el pleno para la designación del Diputado General.